Euskaltzaindiaren webguneko hizkuntza baliabideak

www.euskaltzaindia.eus

Iñaki Kareaga
Euskaltzaindiaren Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Bilbo, 2014-12-17

euskarazko IKTak mintegia

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Zuzenean

Bilatu nahi duzun forma:

Iturria

Hiztegi batua

Bilatu

Baliabideak arloka

- Hiztegiak eta Corpusak
- Gramatika
- Dialektologia
- Literatura
- Onomastika
- Euskararen sustapena

Baliabide orokorrak

- e-AEB (kontsulta edukiak jaisteko)
- Jagonet galde-erantzunak
- Arauak

Argitalpenen bertsio elektronikoak

- Bildumak
- "Euskera" agerkariaren hemeroteka
- "Principe de Viana" aldizkaria
- "Anaitasuna" aldizkaria
- Euskararen Historia Soziala: Argibide bibliografikoak
- Luis Villasanteren idazlanak
- "Nafarkaria"
- Herri Literatura Jardunaldietako Antologia
- Beste argitalpenak

Itxi

1. adibidea

Erabiltzaile-profila: hiritarra

Egoera: gurasoek umearen izena aukeratzeko laguntza behar dute

Gizonezkoen izenen zerrenda

A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | Ñ | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z

- EMILIANO
- EMILIO
- EMILLEN
- EMILLI
- EMIRI
- ENAITZ
- EÑAUT
- ENDAITZ
- ENDIKA
- ENDIMION
- ENDRIKE
- ENEAS
- ENEKO
- ENEKOITZ
- ENIO
- ENPEDOKLES
- EOLO
- EOS
- EPAMINONDAS
- EPIKARMO

Pertsona-izenak

2 emaitza **ENEKO** bilaketarentzat

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Sexua
ENEKO			Gizonezkoa
Ohiko euskal izena Erdi Aroan. 842. urtean Iruñeko lehen errege izan zen *Eneco*-k Esa herria eman zion Leireko monasterioari ("*Ego rex Eneco concedo...*"). Jakitunen artean adostasun zabala dago euskal izentzat jotzean; osagaiak ene ´nirea´ eta -ko atzizki hipokoristikoa direteke, eta jatorrizko adiera ´enetxoa´ edo. Loiolako Eneko latinez *Enecus* zen eta gaztelaniaz *Iñigo* (ikus sarrera hau), lehenago Iruñeko erregeak edo Bizkaiko jaunak bezala. Gero *Ignatius* kristau izena hartu zuen Jesusen Lagundiaren fundatzaileak, Antiokiako santuaren omenez. *Sabino Aranak eta Koldo Elizaldek argitaratuko Santu Izendegia*-n *Ignazio*-ren kidetzat *Iñaki* proposatu zen. Ikus *Iñigo*. Oñan (Bu) bada done Eneko santua, handik kanpo arrras ezezaguna dena. Jaieguna ekainaren 1ean da.			
ENEKOITZ			Gizonezkoa
Eneko izenetik sortua da, *-itz* patronimiko atzizkiaren bidez.			

Oharra: hemen biltzen diren izenak Onomastika batzordeak emandako **irizpen** eta **gomendioak** dira. Bestalde, izen askoren azpian ematen diren argibideak izenaren jatorriari buruzko azalpen osagarri hutsak dira.

Harremanak

Onomastika zerbitzua

Izen-deiturak *	
Enpresa/Erakundea	
Helbidea	
Posta-kodea	
Herria	
Helbide elektronikoa *	
Telefonoa	
Mezua *	

2. adibidea

Erabiltzaile-profila: euskalgintzako profesionala

Egoera: kazetari batek ilargiaren faseak euskaraz adierazteko Euskaltzaindiak zer arau-erabaki eman duen jakin nahi du

Hiztegi batua

5 sarrera **forma=ilargi** bilaketarentzat

ilargi
- **ilargi-aldarte**
- **ilargi berri**
- **ilargi bete**
- **ilargi-jo** izond. 'aldizkako zoroaldiak dituena'

ilargialdi

ilargiratu, ilargira/ilargiratu, ilargiratzen. *da* ad.

ilargitar

ilargite

Bilatu:

Bilatu nahi duzun forma:

Ikus halaber:

- Argibideak

Ilargia: ilbehera, ilgora...

Galdera

Gure inguruan, Gipuzkoako Beterrin behintzat, ilargia handitzen ari den garaiari *ilgora* edota *ilberri* deitzen zaio; eta txikitzen ari denari, *ilbehera*. Eta nik ikusitako hiztegietan ere horrela azaltzen da. Baina aurtengo 2013ko egutegi batek honako hau dio:
ilgora: ez du esan nahi ilargia handitzen ari denik, egunetik egunera zeruan goragoko orbita egiten duela baizik [gaztelaniaz, *luna ascendente*].
ilbehera: ez da ilargia txikitzen ari dela, baizik eta egunetik egunera zeruan egiten duen orbita gero eta beheragokoa dela [gaztelaniaz, *luna descendente*].
Egutegi horren arabera, martxoaren 27an, martxoko euren *ilbehera* omen delakoaren erdi-erdian... *ilargi betea* izango dugu!
Nahaste-borraste horrek eragin dizkidan zalantzak argitze aldera, hona nire galderak:
1. Zuzena al da egutegi horrek dioena *ilgora* eta *ilbehera* hitzen esanahiari dagokionez?
2. Ilargiaren zein aldi egokituko da 2013ko martxoaren 23an?
3. Euskaraz nola adierazi behar dira gaztelaniazko *luna creciente, luna menguante, luna ascendente* eta *luna descendente*?

Erantzuna

2012ko *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* kontsultatzean (ikus 402.-403. or.), hauxe aurki daiteke (besteak beste):
ilgora: Ilargiaren goraldia, ilargi berritik ilargi betera doan 14 eguneko aldia.
ilbehera: Ilargiaren beheraldia, ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia.
ilargi bete: Aurpegia erabat argiturik agertzen duen ilargia.
ilargi berri: Lurraren eta Eguzkiaren artean dagoelako ikusezina gertatzen den ilargia; hurrengo egunetako ilargia, ilargi betea arte.
Beraz, *ilbehera* ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia da. Bistan da, hortaz, ilargiaren aldi horiek haren itxura (gure planetatik ikusten den bezala) adierazten dutela, eta ez orbita. Jakizu, gainera, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*k dioen horrekin bat datozela euskalki guztiak mendez mende. Beraz:
1. Ez da zuzena egutegi horrek dioena *ilgora* eta *ilbehera* hitzen esanahiari dagokionez.
2. Astronomoen kalkulu okerrik izan ezean, 2013ko martxoaren 27an *ilargi betea* izango dugu eta, beraz, martxoaren 23an *ilgora* egongo da ilargia.
3. Gaztelaniazko *luna creciente* **ilgora** da euskaraz; eta *luna menguante*, berriz, **ilbehera**.
4. Gaztelaniazko *luna ascendente, luna descendente* bereizkuntza dela eta, euskalkietan eta euskarazko tradizio idatzian ez da ageri horren lekuko euskal ordainik (eta uste dut gaztelaniaz ere aski berria dela). Horregatik, Euskaltzaindiak ez du arautu oraindik bereizkuntza hori.
Joxe Ramon Zubimendi (2013-01-15)

JAGONET

Jagonet interneten bidez euskararen erabilera zuzena eta egokia eragiteko zerbitzua da, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarrak zerbitzatzea, eta bestetik, gure hizkuntzaren kalitatea bermatzea. Zerbitzua hizkuntza mailako kontsulta interaktiboak egiteko prestatua dago eta erabiltzaileak eskuragarri ditu Euskaltzaindiaren batzordeek aztergai izan dituzten galderarik ohikoenen erantzunak.

Galderak gaika sailkaturik

- Lexikoa
- Morfologia
- Sintaxia
- Onomastika
- Ahoskera
- Idazkera

Egin zure galdera:

Izen-deiturak *	
Enpresa/Erakundea	
Helbidea	
Posta-kodea	

3. adibidea

Erabiltzaile-profila: ikertzailea

Egoera: Etnografo batek gaztelaniazko *espantapájaros* euskarazko ahozko tradizioan eta tradizio idatzian nola erabili den jakin nahi du.

172. Mapa: espantapájaros / épouvantail / scarecrow

GALDERA: 05480; ALG: 1112; ALEANR: I, 43



- txoriyagola
- txuso
- mamu
- mozorro
- muku
- kuku
- (-) kuso
- (+) txap(ar)ro
- (txori) malo
- txori izugarri
- marika
- kalaka
- txatxu
- fantoma
- bestelakoak

- "Mamu" superlemaren azpian honako lema hauek bildu dira: mamotzar (Erratzu), mamur (Aramaio), mamü (Bastida), landako mami (Bidarrai), masteko mamu (Sara), txorimamu (Kortezubi, Gizaburuaga, Lekeitio), mamu (dagokion kolorea duten gainerako herrietan).
- "Mozorro" superlemaren azpian honako lema hauek bildu dira: momoxorro (Dorrao / Torrano), mozorro (Ezkio-Itsaso, Etxarri, Goizueta, Igoa, Suarbe, Alkotz, Eugi, Zilbeti, Mezkiritz, Abaurregaina / Abaurrea Alta), txorimozorro (Oderitz), zamo, zamorro (Aia), zomorro (Lasarte, Ezkurra).
- "-kuso" superlemaren azpian ondokoak: arkakusu (Bolibar), artakuxo (Berriz), khürso (Altzürükü, Santa Grazi) kukuso (Urretxu, Zestoa, Amezketa, Gaintza), kuso (Arrazola, Elorrio, Ataun, Orexa), kürtso (Urdiñarbe), kürzo (Montori), küso (Altzai, Montori, Ürrüstoi), khüso (Pagola, Larraine, Sohüta, Barkoxe, Eskiula), txorikusu (Markina).
- "-txap(ar)ro" superlemaren azpian hauek: ombretxaparro (Orio, Tolosa, Donostia, Lasarte, Hernani), ombretxapero (Andoian, Pasaia), andretxapero (Oiartzun).
- "(Txori)malo" superleman: katamalo (Legazpi), txankamalo (Azkoitia), txoremalo (Beruete), txorimallo (Aia), txorimarro (Etxarri), txorimalo (dagokion kolorea duten gainerako herriak).
- "Txori izugarri" superlemaren azpian: izigarri (Etxalar), izugarri (Zegama, Ezkio-Itsaso, Beasain), txori izugarri (Legazpi, Beizama, Errezil, Aia, Asteasu, Ikaztegieta, Tolosa, Elduain), beleizugarri (Beizama), txori espantargarri (Ondarroa), txori izutzaille (Bermeo, Hondarribia).

- Bestelakoak: bazoka (Larzabale), bazuka (Altzürükü), belaza (Uztaritze), embotxapau (Hendaia), espantapajaros (Getaria), ezpantajo (Jaurrieta), garbüra (Ürrüstoi), gixonillo (Hondarribia), itxura (Baigorri), ¡irueta (Pagola), monigote (Hondarribia), mutxitarro (Urdiain), orontzaro (Leitza), payaso (Lasarte), tankalari (Ezterenzubi), txañtxo (Elduain).

Orotariko Euskal Hiztegia

2 emaitza bilaketarentzat

kuso

kuso

1 **kuso** (V-ger-arr-oroz-m, G-azp, S; *kh-* S; Gèze → Dv, H (S)), ***kuxo*** (Añ (V)), ***kuixu*** (S), ***kurso***. Ref.: A; A *Apend* (*kuixu*); Lrq (*khüso*).

♦***1.*** Espantapájaros. "Espantajo de huertas, sembrados" Añ. "Soloetan ikusten dira [...] gizon-irudiko papao batzuk. Izen asko daukez: *kusoa, artakukusoa [...], txuxoa*" A *Ezale* 1898, 127b. ∗ *Eztit nik senar beharrik / ohian lo egoiteko, / holako gizon bat / hobe lukezu kusoki ezarteko*. AstLas 53. *Ez uste ükhen haatik Manexek han egon behar ziala mamu edo khürso gisa, kolte baten phüntan [...] aiziak jorik*. Eskual 10-4-1908, 3. *Bi egünen bürian beldür beitira alhorreko khüsoaren*. Eskual 18-7-1913, 3. *Khüso parrasta bat, batak lürrin txüt-txüta [...] bestiak [...] hüntzer zuhaiñ adarren ebaska*. GH 1931, 471.

♦**2.** (*khü-* S ap. A (que cita a Ip), Lh y Lrq; Gèze, Foix ap. Lh), ***kurtso*** (Lh), ***kurtxo*** (Darric ap. *DRA*). Fantasma. ∗ *Itxason gañen haren huñez ebilten ikhustiak izitü zütian: khüso bat da, ziuen*. Ip Mt 14, 26 (Lç *fantosma*, He, Hual *fantasma*, Dv, Ur (V), SalabBN, Echn, Leon, Ker, IBk, IBe *mamu*, Ur (G) *zomorru*, Samper *espantajo*, Ol *iratxo*, Or *irudituzko*).

♦**3.** "*Khüso* (S; Foix), peu intelligent, bête" Lh. ■ "(Homme) peu dégourdi. *Zer khüsua, gizun hori!* quel "empoté", cet homme-là" Lrq.

♦**4.** "*Khüso*, fripon" Lh.

Azkue Biblioteka

(*) Oharra: behar-beharrezko datuak.

Izena *

Deiturak *

Enpresa/Erakundea

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Helbide elektronikoa *

Eskerrik asko!

ikareaga@euskaltzaindia.eus

euskarazko IKTak mintegia

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE